

**LIBURU
AURRERAPENA**

Pello Lizarralde, Jose Ignacio Agorretari igorritako testu bat du oinarrian hitzez, pinturaz, musikaz eta argazkiz osatutako proiektu honek. Heriotzaren itzala hurbildu ahala, iraganeko bideetara itzultzeaz dihardu.

Sastraka



'Sastraka / Maleza'

Egileak: Pello Lizarralde (idazlea), Jose Ignacio Agorreta (margolaria), Imanol Ubeda (musikaria) eta Imanol Rayo (zinemagilea).
Argitaletxea: Erein.

-I-

Inor ez da kalterik gabe ateratzen oroitzen batetik.

Gure argia apaltzen denean, iraganaren dirgai itsugarriek kolpatzen gaituzte. Orduan, memoriaren gurgpilean katigaturik, orainaren etxea utzi eta hiriko kaleetara jotzen dugu.

Jakitun gara hiriak betiko galdu dituela bere ateak, eta aski zaigu edozein irtenbide aurkitzea. Etorbide berrien alde banatan saltokietako erakuslehoi etengabe argizatuetan maniki zuriek mugimendu bat entsaiatzen dute, begiak nora gabe, ezpainak

erdi irekita. Barrenetik haize-laster hotzak edo beroak eta aire-lurrintzaileen gozoa heltzen zaizkigu.

Nahasmendua iristen zaigu ohar-tzean espaloiak eta oinezkoentzako pasabideak desa-

gertu direla, eta inork ez duela ezer prestatu zuk aurrera egin dezazun. Pentsatu nahi duzu ez zarela hara oinez iritsi-den lehen, eta hala dela frogatzen duen

zerbaiten bila hasi zara. Handik pixka batera ageriko zeinu bakar bat atzeman dugu: erdiko partearra zeharkatzen duen lur zerrenda bakandu bat.

-II-

Lau bideko errepidea lasterka zeharkatu ondoren, erreka baten ondoan gelditu gara. Uharka porlanez estalia du eta ertzetako belar gaiztoen artetik ozta-ozta ikus daiteke hondoko ur negarra. Harago, ezpondan, isats eta ote artean ia itota, astoarroza argirantz egina. Bazter horretan erreten usaina nagusitzen da.

Handik begizatzen ditugu estadioa, hipermerkatua eta enpresa baten eraikin beiraz jantzia. Beste aldean, haraino iristen den autobus linea bakarraren markesina. Ikusi ezin ditugunen artean, ez urrun, bazegoen, badago, ezin ziur esan, galdategi baten hezurdura, argiak alde guztietatik zulatua.

Tentaldia handia den arren, ez du merezi lanik hartzea gogortzen zer zen han oraingoan aurretik. Ereinu galdua da, edo irabazia.

Dena dela, jakitun gara eremu berri noblea zapaltzen ari garela.

www.tartean.eus

f @TARTEANteatro
@TARTEANteatro
@tarteanteatro

MARTXOAREN
9an eta 10ean
BILBOKO ARRIAGA
ANTZOKIAN
19:30ean

ALDERRAY

DRAMATURGIA
PATXO TELLERIA

ZUZENDARITZA
PATXO TELLERIA

AKTOREAK

MIKEL MARTINEZ eta SANDRA FDEZ. AGUIRRE

